

Koiuntura di-da batean

2018ko ekaina

Aurkibidea

1. Hazkundera
 2. Enplegua
 3. Inflazioa
 4. Kanpo merkataritza
 5. Ingurunea
 6. Aurreikuspenak
- Eranskina

1. Inbertsioa izan da berriro EAEko BPGaren agregatu hedakorrena.

2018ko lehen hiruhilekoan %3,7 hazi zen urte arteko tasan.

2. Enplegua %2,2 areagotu zen 2018ko lehen hiruhilekoan.

Eraikuntzak lortu zuen urte arteko gehikuntzarik handiena.

3. KPI indizea bi hamarren jaitsi zen martxoko datuaren aldean.

Petrolioaren garestitzeak pentsarazten du udan inflazioa %2,0ra goratuko dela.

4. EAEk atzerrian saldutako esportazioak %10,9 hazi egin ziren lehen hiruhilekoan.

Inportazioak erritmo apalagoan handitu ziren.

5. Europako ekonomiaren hazkundera zertxobait apaldu da.

Moteltzearen arrazoiak koiunturakoak direla ematen du.

6. Etengabeko hazkundera espero da 2018-19 epealdian.

Europar Batasuna %2,5 haziko da aurtien eta %2,2, berriaz, datorren urtean.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SALA
Economía eta Finantza Zerbitzua


DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Financiación

EAE-KO BPG-AREN HAZKUNDEA

Inbertsioa izan da berriro EAEko BPGaren agregatu hedakorrena

BPGaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Eustatek hiruhilekoka argitaratzen dituen kontu ekonomikoen informazio zehatzak adierazten du EAEko ekonomiak hazkunde erritmo biziari eutsi ziola 2018ko lehen hiruhilekoan. Epealdi horretako urte arteko aldakuntza tasa %3,1 izan zen, aurreko bi hiruhilekoetako emaitza hamarren batean gaindituz. Beraz, oraindik ez da moteltzeko zantzurik hautematen EAEko BPGaren bilakaeran. Eskariaren ikuspegitik, beraren bi osagai nagusiek aurreko hiruhilekoan jasotako erritmoaren antzekoa eskuratu zuten, kapital eraketa gordinak (%3,7) azken kontsumoak (%2,8) baino bultzada handiagoa lortuta. Ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa (%4,8) berriro izan zen agregaturik dinamikoena, baina gainontzeko inbertsioaren gehikuntza ere (%3,0) esanguratsua izan zen. Familien gastua %2,9 areagotu zen, hots, 2017an jaso zen zenbakia bezalatsu.


Azken kontsumoaren bilakaera

Urte arteko aldakuntza tasa




Inbertsioaren bilakaera


Urte arteko aldakuntza tasa



Industriaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Eraikuntzaren balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa




Hala industriak nola zerbitzuen multzoak bi hamarrenetan hobetu zuten hazkunde erritmoa 2017ko laugarren hiruhilekoko emaitzaren aldean. Aitzitik, eraikuntzak lau hamarrenetan galgatu zuen bere urte arteko gehikuntza, oraindik aipagarria den %2,7an utzi arte. Zerbitzuetako jardueren artean, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak eta administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen dituenak aurreko datua berdindu zuten. Gainontzeko zerbitzuek (%3,1), finantza, higiezinak, lanbide eta jardura laguntzaileak barruan baititu, aurrekoa baino emaitza nabarmen hobea lortu zuen.


Zerbitzuen balio erantsia
Urte arteko aldakuntza tasa



Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren b.e.
Urte arteko aldakuntza tasa




Herri administrazioa, hezkuntza, osasun eta gizarte zerbitzuetako jardueren b.e.
Urte arteko aldakuntza tasa



LAN MERKATUA


Enplegua %2,2 areagotu zen 2018ko lehen hiruhilekoan

Enpleguaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




EAEko ekonomiak 2018ko lehen hiruhilekoan izan zuen bilakaera onak lanaldi osoko lanpostu baliokideen gehikuntza garrantzitsua ekarri zuen, Eustatek %2,2an zenbatetsi duena. Tasa hori azken urteetan jasotakoak baino zertxobait altuagoa da. Hazkunde horrek esan nahi du 20.000 enplegu garbi baino zertxobait gehiago sortu direla azken hamabi hilekoetan. Horri esker, EAEko ekonomiak gaur egun 947.600 lanpostu dauzka guztira. Zenbaki hori urrun dago oraindik 2008ko hasieran zeuden milioi bat lanpostuetatik, baina adierazten du dagoeneko 70.000 lanpostu inguru berreskuratu direla bigarren atzeraldiko une baxuenetik (2014ko hasieran gertatu zen). Eraikuntzak eskuratu zuen urte arteko hazkunde tasarik gorena, epealdi horretan lortutako %2,9ari esker.

Enplegua lehen arloan
Urte arteko aldakuntza tasa




Enplegua eraikuntzan
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

Enplegua industrian

Urte arteko aldakuntza tasak




Industriaren enpleguak erritmo egonkorriari atxiki zion eta %1,6ko urte arteko tasa jaso zuen, aurreko hiruhilekoan bezala eta 2016an zein 2017an jasotako batez bestekoetatik hamarren bakar bat beherago. Azken urtebetean, sektoreak 3.000 lanpostu baino zertxobait gehiago berreskuratu ditu eta dagoeneko 202.000 enplegu dauka. Halere, 2008tik bizi diren bi atzeraldiek 60.000 lanpostu desagerrarazi zituzten sektorean. Haietatik 10.000 inguru bakarrik berreskuratu dira.

Aitzitik, zerbitzuetan inoizko enplegu kopururik altuena jaso zen, lanaldi osoko 676.000 lanposturekin. Kopuru hori atzeraldien aurretik zegoena baino askoz ere altuagoa da. Aurtengo lehen hiruhilekoan, aldakuntza tasa %2,3ra iritsi zen, 2015eko hasieratik eskuratu diren balioekin bat eginez. Horrek esan nahi du azken urtebetean 15.000 enplegu sortu direla zerbitzuetan.

Enplegua zerbitzuetan


Urte arteko aldakuntza tasak



Gizarte Segurantzako afiliazioaren apirilko datuek pentsarazten dute azken epealdietan enpleguaren gehikuntzak lortu duen erritmo nabarmenak bigarren hiruhilekora ere hedatu dela. Hain zuzen ere, hileko horretako urte arteko aldakuntza %2,0 izan zen, 2016ko eta 2017ko batez bestekoen antzekoa baita. Administrazioaren erregistro horrek adierazten du garraioa (%4,2), informazioa eta komunikazioak (%4,0) eta irakaskuntza (%3,4) direla gaur eguneko dinamikoak. Aitzitik, finantza jarduerak afiliatuen kopurua murriztu dute berriro (%-1,3).


Afiliazioa Gizarte Segurantzari

Urte arteko aldakuntza tasak



INFLAZIOA



KPI indizea bi hamarren jaitsi zen martxoko datuaren aldean

KPI indize orokorra
 Urte arteko aldakuntza tasa


INEk argitaratu dituen datuen arabera, apirilean EAEko KPIa %1,0an kokatu zen, aurreko hilekoko emaitza baino bi hamarren beherago. Bilakaera horren atzean zerbitzuen prezioen moteltzea dago, bereziki pakete turistikoek merkatzea. Izan ere, pakete turistikoek prezioek gora egin zuten martxoan, aurten Aste Santua hileko horretan ospatu zelako, iaz apirilean izan zen bitartean.

KPIaren banaketa
 Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

| | 2016 | 2017 | 2018ko apirila | Ekarpena |
|---------------------------------|-------------|------------|----------------|------------|
| Inflazio osoa (%100) | 0,0 | 2,0 | 1,0 | 1,0 |
| Azpiko inflazioa (%81,8) | 0,9 | 1,1 | 0,8 | 0,6 |
| - Elikagai landuak (%14,1) | 0,9 | 0,0 | 1,4 | 0,2 |
| - Industria ondasunak (%24,5) | 0,8 | 0,3 | -0,3 | -0,1 |
| - Zerbitzuak (%43,2) | 1,1 | 1,7 | 1,2 | 0,5 |
| Hondar inflazioa (%18,2) | -4,2 | 6,5 | 2,2 | 0,4 |
| - Landu gabeko janariak (%7,6) | 2,6 | 3,7 | 2,5 | 0,2 |
| - Energia (%10,6) | -8,2 | 8,2 | 2,1 | 0,2 |

Azpiko inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak

Hondar inflazioa
 Urte arteko aldakuntza tasak


Petrolio upelaren prezioa

Dolarrak



Hala eta guztiz ere, kontsumoko prezioen datoen hilekoetako bilakaera petrolioaren salneurriak hartuko duen norabideak baldintzatuko du, neurri handi batean. Hain zuzen ere, eskari global sendoak, ekoizpenaren murrizketek eta tentsio geopolitikoek, hala nola Iranekin adostu zen energia nuklearreko hitzarmenetik irteteko AEBek hartu zuten erabakiak, lehenagori horretan berriki eragin duten gorakadak inflazioa %2tik hurbileko maila batera eramane dezake udako hilekoetan, apirilera %1eko tasa bikoiztuz.

Hori horrela izanda, energiako prezioek moteltzeko joera bertan behar utzi zuten eta gorantz egin zuten. Horren ondorioz, garraioaren taldea bost hamarren igo zen aurreko hilekoaren aldean (%1,4tik %1,9ra). Igoera hori beste talde batzuen apaltzeak konpentsatu zuen, hala nola aisialdia eta kulturarenak, eta hotelak, kafetegiak eta jatetxeenak, lehenago aipatu den Aste Santua efektuarengatik.

KPIaren talde nagusiak Urte arteko aldakuntza tasak. 2018ko apirila


| | Euskadi | Espainia | Euro gunea |
|--|------------|------------|------------|
| INDIZE OROKORRA | 1,0 | 1,1 | 1,2 |
| Janariak eta alkoholik gabeko edariak | 1,7 | 1,6 | 1,9 |
| Edari alkoholduak eta tabakoa | 2,1 | 2,0 | 4,5 |
| Jantziak eta oinetakoak | 1,3 | 0,8 | -0,3 |
| Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak | 0,6 | 0,8 | 1,4 |
| Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea | -0,2 | 0,1 | 0,3 |
| Medikuntza | 0,1 | 0,1 | 0,8 |
| Garraioa | 1,9 | 2,0 | 1,6 |
| Komunikazioak | 2,9 | 2,8 | -0,7 |
| Aisia eta kultura | -1,6 | -1,4 | 0,3 |
| Hezkuntza | 1,0 | 0,7 | -2,0 |
| Jatetxeak eta hotelak | 1,7 | 1,6 | 1,7 |
| Bestelako ondasunak eta zerbitzuak | 0,3 | 0,8 | 1,3 |

Iturria: INE eta Eurostat.

KANPO MERKATARITZA


EAEk atzerrian saldutako esportazioak %10,9 hazi egin ziren hiruhilekoan

Esportazio guztien eta ez-energetikoen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak




2018ko lehen hiruhilekoan, atzerrira esportatutako ondasun guztien balioa %10,9 hazi zen. Tasa hori, berez, garrantzitsua da, baina are esanguratsua goa da kontuan hartzen bada Aste Santua martxoan ospatu izanak lan egunak kendu dizkiola hiruhilekoari. Ibilgailuen salmenta, gehien esportatzen den kapitulua baita (gutzizkoaren %28,5), %17,8 hazi zen eta makinak eta tresna mekanikoa (guztiaren %13,0), berriz, %5,1. Hala ere, gehikuntzarik handiena erregai mineralena izan zen, %49,2 hazita. Tonatan neurtuta, esportazioen guztizkoa %7,3 handitu zen eta energiaren bestelakoena, ordea, %2,5 murriztu, prezioak nabarmen suspertzen ari direla agerian utziz.

Inportazio guztien eta ez-energetikoen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak




Aurtengo lehen hiruhilekoko inportazioen diru kopurua 4.908,4 milioi eurokoa izan zen, gutxi gorabehera. Zifra hori azken 37 hiruhilekoetako altuena da eta serie historiko osoaren altuena izango zen 2007ko hirugarren hiruhilekotik 2008ko laugarrenera doan epea kentzen bada, garai hartan inportazioak esportazioak baino gehiago izan baitziren. Erregai mineralen erosketa (pisu gehien duen kapitulua baita, guztizkoaren %27,5 batekin) %4,6 murriztu zen. Beraz, erosketen hazkundera energiaren bestelako inportazioan oinarritu zen. Zehazkiago, metalen eta beren manufakturen inportazioan (%5,8), makinak eta tresnetan (%7,2) eta garraio materialean (%10,3) oinarritu zen. Aurrekoaren ondorioz, inportazio guztien balioa %2,9 handitu zen.

Saldoa guztira. BPGaren %a



Saldo ez-energetikoa. BPGaren %a



Iturria: Eustat, INE eta Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

Salerosketa horien ondorioz, merkataritza saldo osoak superabita ekarri zuen, ia 1.513 milioi eurokoa, urtebete bat lehenago lortu zena baino 489 milioi gehiago. Energiatz bestelako superabitaren gehikuntza garrantzitsuak, energiaren defizit handiagoa konpentsatu baitzuen, azaltzen du bilakaera hori. EAEko emaitza urrun dago Espainiak jaso dituen datuetatik, non merkataritza defizita 6.933 milioi euroko langa gainditu zuelako.

Geografia guneka aztertuta, salmenten gehikuntza ekonomia aurreratuetara (%12,0) eta garapen bidean daudenetara (%5,6) hedatu zen. Alde batera uzten badira Japoniara bidalitako esportazioak, yenak euroaren aldean izan zuen balio galerak kaltetu baitzituen, merkataritza bazkide nagusi guztiek EAEko produktuen erosketa handitu zuten. Inportazioen bilakaera ez zen horren dinamikoa izan. Kasu horretan, Errusiatik eta Erresuma Batutik ekarritako inportazioak jaitsiera biziak nozitu zituen (%-77,4 eta %-57,0, hurrenez hurren), erregai mineral gutxiago erosi zitzaielako.

ESPORTAZIOAK ETA INPORTAZIOAK GUZTIRA


| | 2016 | 2017 | 2017 | | | | 2018 | |
|---------------------|-------|------|------|------|------|------|------|------------|
| | | | I | II | III | IV | I | I (mila €) |
| ESPORTAZIOAK | | | | | | | | |
| GUZTIRA | -1,2 | 10,5 | 13,2 | 5,5 | 12,7 | 11,1 | 10,9 | 6.421.170 |
| ELGE | 1,7 | 10,6 | 12,0 | 5,3 | 13,4 | 12,3 | 12,0 | 5.324.332 |
| Europar Batasuna | 1,6 | 9,4 | 12,7 | 2,2 | 11,8 | 11,9 | 8,5 | 4.202.118 |
| ELGETIK KANPO | -12,0 | 9,9 | 19,5 | 6,2 | 9,7 | 6,2 | 5,6 | 1.096.838 |
| INPORTAZIOAK | | | | | | | | |
| GUZTIRA | -7,3 | 20,5 | 34,9 | 12,9 | 22,5 | 13,9 | 2,9 | 4.908.399 |
| ELGE | -6,9 | 17,8 | 42,9 | 2,6 | 23,0 | 8,9 | 1,5 | 3.454.755 |
| Europar Batasuna | -7,9 | 13,4 | 36,5 | 1,1 | 14,2 | 5,6 | -6,0 | 2.725.148 |
| ELGETIK KANPO | -8,4 | 26,9 | 18,2 | 42,4 | 21,6 | 26,5 | 6,4 | 1.453.644 |

Iturria: Eustat.


EUROPAKO EKONOMIA HAZKUNDEA

Europako ekonomiaren hazkundera zertxobait apaldu da

Europar Batasuneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Euroguneko BPGa
Urte arteko aldakuntza tasak




Eurostatek argitaratu dituen azken datuek adierazten dute Eurogunea %2,5 hazi zela 2018ko lehen hiruhilekoan. Tasa horrek esan nahi du moteltze arina gauzatu dela iazko bigarren seihilekoan bizi zen hedatze biziaren aldean. Zenbakiak baieztatzen du EBZk aurreratu zuen nolabaiteko moteltzearen aukera, neurri handi batean hotzak, grebek (urtarrilean eta otsailen, Alemanian, arlo elektrikoan eta siderurgian egin ziren grebek industria ekoizpena nabarmenki jaitsarazi zuten) eta Aste Santua martxoan ospatu izanak eraginda. Beste aldetik, AEBetako joera protekzionistak, Europar Batasunari altzairuan eta aluminioan ezarriko dizkion arantzelen hila-beteko salbuespena hileko bakar batek iraungo duela iragarrita, konfiantza hobetzearen kontra jokatu du. Orobat, euroak atzera egin du eta bi hilekoko minimoan kokatu da, baina oraindik sendo samar dago dolarren aldean eta horrek lehiazteko ahalmena kentzen die Europako esportazioei. Dena dela, bai Euroguneko hazkundera bai Europar Batasunarena sendoa da oraindik.

Alemaniko BPGa
Urte arteko tasa




Frantziako BPGa
Urte arteko tasa




Erresuma Batuko BPGa

Urte arteko tasa

**Italiako BPGa**

Urte arteko tasa



Eremua osatzen duten herrialde nagusi guztiek nabaritu zuten erritmo galera hori. Alemaniak ekoizpenaren jaitsiera eta kanpo merkataritzaren motelteza pairatu zituen. Frantzian, berriz, lehen zenbatespenek iradokitzen dute kontsumoaren, inbertsioaren eta esportazioen bizitasun apalagoak ekarri zuela erritmo galera hori. Erresuma Batuak moteltezeko joerari jarraipena eman zion eta %1,2 hazi zen, hots, 2012ko bigarren hiruhiletatik inoiz izan duen hazkunde tasarik txikiena. Eraikuntzaren ekoizpenak ezagutu zuen beherakada bortitzak, manufakturen ahultasunak eta zerbitzuen hazkunde apalagoak eragin zuten gehikuntza tasa txikiago hori.

Espainiak bere merkataritza bazkide nagusiek baino hobeto erantzun zion egoerari eta bertako ekonomia jarduerak %3,0 sendo bati eutsi zion, 2017ko maila ia berdinduz. Hazkundearen motorra kontsumo pribatua izan zen berriro, inbertsioak bere tasa bi puntu baino gehiago moteldu zuen bitartean. Izan ere, BPGaren osagaien artean, kontsumo pribatuak bakarrik areagotu zuen bere hazkunde tasa aurreko hiruhilekoko emaitzaren aldean. Kanpo arloak, berriz, bi hamarren ekarri zizkion jarduerari, 2017ko azken hiruhilekoan kendu zion hamarren aldean hobekuntza nabarmena delarik. Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntza izan zen biziena (%6,0) eta zortzigarrenez handitu zuen bere tasa. Industriak, ordea, gehikuntza tasa moteldu zuen (%2,8) eta zerbitzuak egonkor (%2,5) geratu ziren. Enplegua %2,6 areagotu zen. Hiru hamarrenetako apaltze hori sektore guztietan hauteman zen, lanpostu gutxiago sortu zituztelako. Hala eta guztiz ere, lanaldi osoko 466.000 lanpostu balio-kide sortu ziren.

Espainiako ekonomiaren adierazle makroekonomiko nagusiak


| | 2016 | 2017 | 2017-I | 2017-II | 2017-III | 2017-IV | 2018-I |
|-------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| BPG | 3,3 | 3,1 | 3,0 | 3,1 | 3,1 | 3,1 | 3,0 |
| Kontsumo pribatua | 2,9 | 2,4 | 2,2 | 2,4 | 2,4 | 2,5 | 2,8 |
| Kontsumo publikoa | 0,8 | 1,6 | 1,0 | 1,5 | 1,4 | 2,4 | 1,9 |
| KFEG | 3,3 | 5,0 | 4,9 | 3,9 | 5,6 | 5,6 | 3,5 |
| Esportazioak | 4,8 | 5,0 | 5,6 | 4,5 | 5,6 | 4,4 | 3,2 |
| Inportazioak | 2,7 | 4,7 | 4,5 | 3,1 | 5,9 | 5,2 | 2,8 |
| Enplegua | 3,0 | 2,8 | 2,6 | 2,9 | 2,9 | 2,9 | 2,6 |
| KPI | -0,2 | 2,0 | 2,7 | 2,0 | 1,7 | 1,4 | 1,0 |

EUROPAKO BATZORDEAREN AURREIKUSPENAK

Etengabeko hazkundera espero da 2018-19 epealdian

Europar Batasuneko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Europako Batzordeak udaberriko txostenean argitaratu dituen aurreikuspenen arabera, EB-27ko (Erresuma Batua gabe) ekonomiaren hazkundera %2,5ean kokatuko da 2018an eta zertxobait apalduko da 2019an, %2,2an kokatu arte. Tasa horiek goranzko zuzenketa ekarri dute aurreko txostenean argitaratu zirenen aldean. Hazkundera kontsumoaren igoera egonkorrean eta esportazioen eta inbertsioaren sendotasunean oinarrituko da. Moteltzearen arrazoiak herrialde eta sektore batzuetan dagoeneko agerikoak diren desorekak, moneta politika berria eta munduko merkataritzaren bizitasun apalagoa izango dira.


BPG. Europako Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

| | Oraingoak | | | Aurreko txostenarekiko aldeak | |
|---------------------------------|------------|------------|------------|-------------------------------|-------------|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 |
| Europar Batasuna | 2,6 | 2,5 | 2,2 | +0,2 | +0,2 |
| Erresuma Batua | 1,8 | 1,5 | 1,2 | +0,1 | +0,1 |
| Eurogunea | 2,4 | 2,3 | 2,0 | = | = |
| Alemania | 2,2 | 2,3 | 2,1 | = | = |
| Belgika | 1,7 | 1,8 | 1,7 | = | = |
| Espainia | 3,1 | 2,9 | 2,4 | +0,3 | +0,3 |
| Frantzia | 1,8 | 2,0 | 1,8 | = | = |
| Italia | 1,5 | 1,5 | 1,2 | = | = |
| Herbehereak | 3,2 | 3,0 | 2,6 | +0,1 | +0,1 |
| Portugal | 2,7 | 2,3 | 2,0 | +0,1 | +0,1 |
| Beste herrialde garatuak | | | | | |
| AEB | 2,3 | 2,9 | 2,7 | +0,6 | +0,6 |
| Japonia | 1,7 | 1,3 | 1,1 | +0,1 | +0,1 |

Iturria: Europako Batzordea.


Alemaniko BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa




Frantziako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Espainiako BPGa

Urte arteko aldakuntza tasa



Beste aldetik, Europar Batasuneko langabezia tasa nabarmen berrikusi da beherantz, %6,9ra eta %6,5era, hurrenez hurren, 2018an eta 2019an. Langabezia tasa oso altua da oraindik estatu kide batzuetan. Aitzitik, beste batzuetan gero eta zailagoa da lan eskaintzak betetzea.

Oraingo eszenategian hautematen diren arriskuak areagotu dira eta beherantz seinalatzen dute. Finantza merkatuen hegakortasunak, zerga politika estatubatuarrek eta merkataritza protekzionismoaren igoerak egoera zaugarrian utzi dute Europar Batasuna.

Langabezia tasa. Europako Batzordearen aurreikuspen ekonomikoak

| | Oraingoak | | | Aurreko txostenarekiko aldea | |
|---------------------------------|------------|------------|------------|------------------------------|-------------|
| | 2017 | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 |
| Europar Batasuna | 7,6 | 6,9 | 6,5 | -0,8 | -0,7 |
| Erresuma Batua | 4,4 | 4,4 | 4,6 | -0,3 | -0,2 |
| Eurogunea | 9,1 | 8,4 | 7,9 | -0,1 | = |
| Alemania | 3,8 | 3,6 | 3,5 | +0,1 | +0,3 |
| Belgika | 7,1 | 6,4 | 6,0 | -0,6 | -0,8 |
| Espainia | 17,2 | 15,3 | 13,8 | -0,3 | -0,5 |
| Frantzia | 9,4 | 8,9 | 8,3 | -0,4 | -0,6 |
| Italia | 11,2 | 10,8 | 10,6 | -0,1 | +0,1 |
| Herbehereak | 4,9 | 3,8 | 3,5 | -0,2 | = |
| Portugal | 9,0 | 7,7 | 6,8 | -0,6 | -0,8 |
| Beste herrialde garatuak | | | | | |
| AEB | 4,4 | 4,0 | 3,5 | -0,3 | -0,6 |
| Japonia | 2,8 | 2,7 | 2,6 | -0,1 | -0,1 |

EAE-KO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

| | 2016 | 2017 | 2017 | | | | 2018 |
|----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | | | I | II | III | IV | |
| BPG | 3,1 | 2,9 | 2,8 | 2,9 | 3,0 | 3,0 | 3,1 |
| Familien kontsumoa | 3,1 | 3,0 | 3,0 | 3,0 | 3,0 | 2,8 | 2,9 |
| Administrazioaren kontsumoa | 2,3 | 2,4 | 2,6 | 1,2 | 2,7 | 2,9 | 2,6 |
| Kapital eraketa gordina | 3,1 | 3,5 | 3,0 | 3,2 | 3,9 | 3,8 | 3,7 |
| Barne eskaria | 3,0 | 3,0 | 2,9 | 2,7 | 3,1 | 3,1 | 3,0 |
| Esportazioak | 1,7 | 3,0 | 1,5 | 1,9 | 3,7 | 4,8 | 6,5 |
| Inportazioak | 1,5 | 3,1 | 1,9 | 1,8 | 3,9 | 4,8 | 6,2 |
| Lehen arloa | 2,0 | -3,0 | 4,2 | -1,9 | -1,9 | -11,9 | -5,6 |
| Industria | 2,9 | 2,7 | 2,0 | 2,3 | 2,7 | 3,7 | 3,7 |
| Eraikuntza | 1,8 | 2,5 | 2,1 | 1,9 | 3,0 | 3,1 | 2,7 |
| Zerbitzuak | 2,8 | 3,1 | 3,0 | 3,2 | 3,1 | 2,9 | 3,1 |
| Balio erantsi gordina | 2,7 | 2,9 | 2,7 | 2,9 | 3,0 | 3,0 | 3,1 |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak | 6,8 | 3,0 | 3,3 | 2,4 | 3,0 | 3,2 | 3,1 |

Iturria: Eustat.

Aurreikuspenak. 2018ko martxoa

Urte arteko aldakuntza tasak

| | 2018 | | | | 2018 | 2019 |
|----------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | I | II | III | IV | | |
| BPG | 3,0 | 2,7 | 2,5 | 2,4 | 2,6 | 2,2 |
| Barneko azken kontsumoa | 2,7 | 2,5 | 2,2 | 2,2 | 2,4 | 1,9 |
| Familien kontsumoa | 2,8 | 2,6 | 2,3 | 2,3 | 2,5 | 2,0 |
| Administrazioaren kontsumoa | 2,0 | 1,8 | 1,6 | 1,8 | 1,8 | 1,6 |
| Kapital eraketa gordina | 3,5 | 3,3 | 3,5 | 3,2 | 3,4 | 2,8 |
| Barne eskariaren ekarpena | 3,0 | 2,8 | 2,6 | 2,6 | 2,7 | 2,3 |
| Kanpo eskariaren ekarpena | 0,0 | -0,1 | -0,1 | -0,2 | -0,1 | -0,1 |
| Lehen arloa | -2,5 | -5,7 | -9,9 | -9,4 | -6,9 | -5,9 |
| Industria | 3,4 | 3,1 | 2,8 | 2,5 | 2,9 | 2,2 |
| Eraikuntza | 2,7 | 2,4 | 2,1 | 1,9 | 2,3 | 1,7 |
| Zerbitzuak | 3,0 | 2,8 | 2,7 | 2,7 | 2,8 | 2,3 |
| Balio erantsi gordina | 3,1 | 2,7 | 2,6 | 2,5 | 2,7 | 2,2 |
| Ekoizkinen gaineko zerga garbiak | 3,0 | 2,5 | 2,3 | 2,2 | 2,5 | 2,0 |
| Enplegua | 2,2 | 2,0 | 1,8 | 1,6 | 1,9 | 1,4 |

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

EAEko ekonomiarako aurreikuspenak

Urte arteko aldakuntza tasak

| | BPG | | | BPG | |
|-----------|------|------|-------------------------------|------|------|
| | 2018 | 2019 | | 2018 | 2019 |
| BBVA | 3,1 | 2,8 | Laboral kutxa | 2,7 | — |
| Funcas | 3,1 | — | CEPREDE | 2,5 | 2,2 |
| Confebask | 2,9 | — | Hispalink (BEGren aldakuntza) | 2,4 | — |

Iturria: CEPREDE (2018ko apirila), BBVA (2018ko apirila), Confebask (2017ko abendua), Laboral Kutxa (2017ko abendua), Funcas (2018ko maiatza) eta Hispalink (2018ko maiatza).

ESPAINIAKO EKONOMIA

Taula makroekonomikoa

Urte arteko aldakuntza tasak

| | 2016 | 2017 | 2017 | | | | 2018 |
|--------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| | | | I | II | III | IV | I |
| BPG | 3,3 | 3,1 | 3,0 | 3,1 | 3,1 | 3,1 | 3,0 |
| Kontsumo pribatua | 2,9 | 2,4 | 2,2 | 2,4 | 2,4 | 2,5 | 2,8 |
| Kontsumo publikoa | 0,8 | 1,6 | 1,0 | 1,5 | 1,4 | 2,4 | 1,9 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 3,3 | 5,0 | 4,9 | 3,9 | 5,6 | 5,6 | 3,5 |
| - Aktibo finko materialak | 3,4 | 5,2 | 5,2 | 4,1 | 5,7 | 6,0 | 3,7 |
| - Eraikuntzan | 2,4 | 4,6 | 4,5 | 4,3 | 5,1 | 4,8 | 4,7 |
| - Ekipamendu ondasunetan | 4,9 | 6,1 | 6,1 | 3,9 | 6,6 | 7,7 | 2,2 |
| - Jabetza intelektualaren produktuak | 2,7 | 3,7 | 3,5 | 2,9 | 5,0 | 3,3 | 2,9 |
| Nazio eskaria (ekarpena) | 2,5 | 2,8 | 2,5 | 2,5 | 3,0 | 3,2 | 2,8 |
| Esportazioak | 4,8 | 5,0 | 5,6 | 4,5 | 5,6 | 4,4 | 3,2 |
| Inportazioak | 2,7 | 4,7 | 4,5 | 3,1 | 5,9 | 5,2 | 2,8 |

Iturria: INE.

Espainiako ekonomiarako hainbat aurreikuspen

Urte arteko aldakuntza tasak

| | BPG | | | BPG | |
|-------------|------|------|------------------------------|------------|------------|
| | 2018 | 2019 | | 2018 | 2019 |
| AFI | 2,8 | 2,3 | Intermoney | 2,8 | 2,4 |
| Axesor | 2,8 | 2,4 | Repsol | 2,6 | 2,4 |
| BBVA | 2,5 | 2,3 | Santander | 2,7 | 2,3 |
| Bankia | 2,9 | 2,3 | Solchaga Recio & asociados | 2,9 | 2,4 |
| CaixaBank | 2,8 | 2,4 | BATEZ BESTE | 2,7 | 2,4 |
| Cemex | 2,7 | 2,3 | Gobernua (2017-10) | 2,3 | — |
| CEEM-URJC | 2,5 | 2,2 | Espainiako Bankua (2018-03) | 2,7 | 2,3 |
| CEPREDE-UAM | 2,6 | 2,3 | Europar Batzordea (2018-025) | 2,9 | 2,4 |
| CEOE | 2,8 | 2,6 | NDF (2018-01) | 2,4 | 2,1 |
| FUNCAS | 2,8 | 2,4 | ELGE (2018-05) | 2,8 | 2,4 |
| ICAE-UCM | 2,7 | 2,7 | The Economist (2018-05) | 2,8 | 2,2 |
| IEE | 2,8 | 2,3 | Consensus Forecast (2018-05) | 2,7 | 2,3 |

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF, Europar Batzordea, The Economist eta Consensus Forecast. AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

NAZIOARTEKO EKONOMIA

Ekonomia hazkundera

Urte arteko aldakuntza tasak

| | 2016 | 2017 | 2017 | | | | 2018 |
|------------------|------|------|------|-----|-----|-----|------|
| | | | I | II | III | IV | I |
| AEB | 1,5 | 2,3 | 2,0 | 2,2 | 2,3 | 2,6 | 2,8 |
| Txina | 6,7 | 6,9 | 6,9 | 6,9 | 6,8 | 6,8 | 6,8 |
| Japonia | 0,9 | 1,7 | 1,3 | 1,6 | 1,9 | 1,8 | 1,0 |
| Kanada | 1,4 | 3,0 | 2,3 | 3,7 | 3,0 | 2,9 | — |
| Europar Batasuna | 2,0 | 2,4 | 2,2 | 2,5 | 2,7 | 2,7 | 2,4 |
| Eurogunea | 1,9 | 2,2 | 2,1 | 2,4 | 2,7 | 2,8 | 2,5 |
| Alemania | 1,9 | 2,2 | 2,1 | 2,3 | 2,7 | 2,9 | 2,3 |
| Frantzia | 1,2 | 1,8 | 1,2 | 2,0 | 2,3 | 2,6 | 2,1 |
| Erresuma Batua | 1,9 | 1,8 | 2,1 | 1,9 | 1,8 | 1,4 | 1,2 |
| Italia | 0,9 | 1,5 | 1,3 | 1,6 | 1,8 | 1,6 | 1,4 |
| Herbehereak | 2,2 | 3,2 | 2,7 | 3,8 | 3,3 | 3,3 | 3,1 |

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

Consensus Forecast. 2018ko maiatza

Urte arteko aldakuntza tasa

| | BPG | | KPI | | LANGABEZIA TASA | |
|------------------|------|------|------|------|-----------------|------|
| | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 | 2018 | 2019 |
| AEB | 2,8 | 2,6 | 2,5 | 2,2 | 3,9 | 3,6 |
| Japonia | 1,3 | 1,1 | 1,0 | 1,1 | 2,6 | 2,5 |
| Kanada | 2,1 | 1,9 | 2,3 | 2,0 | 5,8 | 5,8 |
| Europar Batasuna | 2,2 | 1,9 | 1,7 | 1,7 | — | — |
| Eurogunea | 2,3 | 1,9 | 1,5 | 1,5 | 8,3 | 7,9 |
| Alemania | 2,3 | 1,9 | 1,7 | 1,7 | 5,3 | 5,1 |
| Frantzia | 1,9 | 1,8 | 1,5 | 1,5 | 8,6 | 8,3 |
| Erresuma Batua | 1,4 | 1,5 | 2,5 | 2,2 | 4,3 | 4,4 |
| Italia | 1,4 | 1,2 | 1,1 | 1,3 | 10,8 | 10,3 |
| Espainia | 2,7 | 2,3 | 1,5 | 1,5 | — | — |
| Herbehereak | 2,9 | 2,3 | 1,5 | 2,1 | — | — |

Iturria: Consensus Forecast.